



Informazio-gida



Arloa: PUBLIZITATEA



Publizitate spota



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INFORMAZIO GIDA
HEZKUNTZA PREMIA BEREZIETARA EGOKITUTAKO TAILERRA

ARLOA: PUBLIZITATEA

TAILERRA: PUBLIZITATE SPOTA

1. Helburuak

Publizitatearen berri izatea, mezuak aztertuz eta behatuz.

Publizitateak limurtzeko darabiltzan baliabideak bereiztea, eta publizitateak nola eragiten digun eta gure kontsumo-ohiturak nola baldintzatzen dituen gogoeta egitea.

2. Edukiak

- Alderdi orokorrak.
 - Zer da?
 - Non aurki daiteke?

- Publizitatearen osagaiak.
 - Koloreak.
 - Musika.
 - Eslogana.
 - Pertsonaiak.

3. Tailerra

3.1. Tailerrari dagokionez

ERDIKO MAILA

EKINTZA 1: ZER DA PUBLIZITATEA?

Tailerra aurkezteko, publizitateari buruzko galdera sorta egingo dugu. Hala, sarrera gisa, tailerrean landu beharreko gaiei buruz hitz egin dezakegu.

Ondoren, memory joko bat egingo da, eta bertan publizitatea aurki dezakegun hainbat leku agertuko dira. Modu digitalean egingo da, eta taldeen arteko lehiaketa izango da. Talde bakoitzak aurkitu behar izango ditu bikote gehien.

EKINTZA 2: IRAGARKIEN EZAUGARRIAK

Ikasleek iragarki batzuk ikusiko dituzte Infotekan, eta iragarkien ezaugarriak aztertuko dituzte. Iragarki bakoitzeko, ikasleek fitxa baten hutsuneak bete beharko dituzte, beste hainbat fitxatan bildutako erantzunekin. Taldeka, iragarki bakoitzaren ezaugarriak kokatu beharko dituzte fitxa handian. Amaieran, talde handian jardungo dute emaitzaren inguruan.

EKINTZA 3: PUBLIZITATE-AGENTZIA

Publizitate-iragarkien ezaugarri nagusiak ikasi ondoren, iragarki bat sortu beharko dute, beharrezko material guztien laguntzarekin.

Horretarako, beharrezko material eta baliabideak edukiko dituzte eskura, hala nola musika, mozerroak eta abar, eta bi produktu hautatzeko. Gainera, zenbait jarraibide argi eta lagungarri emango zaizkie.

Behin iragarkia amaiturik bideokamera batez grabatuko da, eta ondoren bi taldeek ikusiko dute elkarrekin.

MAILA AURRERATUA

EKINTZA 1: IRAGARKIEI BURUZKO GOGOETA

Tailerrari hasiera emateko, ikasleei telebista-iragarkiren bat gogora ekartzeko eskatuko zaie, eta iragarki hori zergatik duten gogoko edo zergatik gogoratzen duten gogoeta egiteko esango zaie. Behin gogoeta amaiturik, honako hau galdetuko zaie: beste talde batek, 50-60 urteko pertsonak adibidez, zuek esandako iragarki berak gogoratuko lituzketela uste duzue? Zergatik?

EKINTZA 2: PUBLIZITATEAREN FUNTZIONAMENDUA

Bideo bat ikusiko da, publizitateak nola diharduen azaltzeko. Benetako bizitzan antzera jokatzeko dugu norbait konbentzitu nahi dugunean, eta horrelako egoera batzuk ekarriko ditugu gogora.

EKINTZA 3: XEDE-PUBLIKOA: TARGETA

Taldea, eta ikasleek daramatzaten produktu bat –sexu bakarrekoa, ahal dela– adibide gisa erabiliz, iragarki on bat egiteko zer osagai beharko lituzketen pentsatuko dute ikasleek, iragarkiaren jomugan nor dagoen, hau da, targeta zein den, kontuan hartuta. Sarreran egindako galderetara itzuliz, ohartarazi guk ez ditugula gogoko iragarkiak hautatzen, baizik eta iragarkiek gu hautatu egiten gaituztela, haien targeta osatzen badugu eta ondo eginda badaude; jarraian, horri buruzko gogoeta egin.

EKINTZA 4: PUBLIZITATE-AMARRUAK

Amarru guztiak banan-banan azalduko dira. Gainera, fitxa batean jasota daude amarru horiek guztiak, eta euskarri gisa erabiliko dugu fitxa hori, taldea, zenbait iragarkitan erabilitako amarruak aurkitzeko; kanoi eta eramangarriaren laguntzarekin ikusiko ditugu iragarkiak. Hala, denok batera iragarkia ikusiko dugu, eta, banan-banan, erabil daitezkeen amarru guztiak errepatatuko ditugu, kasu bakoitzean zein erabili diren markatzeko.

4. Gaitasunekiko lotura

4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorriko taldeak

	Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	Elkarbizitzarako kompetentzia	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
Erdiko Maila		✓		
Maila Aurreratua		✓		

	Izaten ikasteko kompetentzia	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia	Matematikarako kompetentzia	Zientziarako kompetentzia
Erdiko Maila	✓	✓		
Maila Aurreratua	✓	✓		

	Teknologiarako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Arterako kompetentzia	Kompetentzia motorra
Erdiko Maila				
Maila Aurreratua				

4.2. Beste talde batzuk

	Ama- hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika- gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala
Erdiko Maila	✓			
Maila Aurreratua	✓			

	Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa- espiritua	Kultura- arloko kontzientzia eta adierazpena
Erdiko Maila	✓			
Maila Aurreratua	✓			

5. Baliabideak

Informazio-gidak

- Kontsumo arduratsuari buruzko gida / Kontsumitzailearen hezkuntzari buruzko 133 tailer / Publizitatea (maleta)
http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs1/es/contenidos/informacion/kb_pubs_mat_didac/es_material/material.html#asp09
- KONTSUMO ALDIZKARIA: 8. zenbakia (2009) eta 2. zenbakia (2007ko 2. seihilekoa).
http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs04/es/contenidos/informacion/kb_pubs_revistas/es_kontsumo/kontsumo.html
- KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILITZAILEEN GIDA. Kontsumo. Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritza 2005.
http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs03/es/contenidos/informacion/kb_pubs_guias/es_guias/guias.html#asp02

Material didaktikoak

- MATERIALES Y PROPUESTAS DIDÁCTICAS. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.
<http://ares.cnice.mec.es/informes/12/contenido/pagina%2071.htm#4.7>
- PUBLICIDAD: UN ENFOQUE CRÍTICO. Hezkuntza Ministerioa
http://ntic.educacion.es/w3//recursos/fp/publicidad_un_enfoque_critico/index.htm
- ACTIVIDADES Y RECURSOS SOBRE PUBLICIDAD Y CONTRAPUBLICIDAD PARA LA ESO. Educastur blog
<http://blog.educastur.es/publi/>
- VALORES Y PUBLICIDAD
<http://valoresypublicidad.blogspot.com/>

Web-orriak

- 34/1988 Legea, azaroaren 11koa, Publizitate Lege Orokorra
http://www.boe.es/aeboe/consultas/bases_datos/doc.php?id=BOE-A-1988-26156

- Abenduaren 30eko 29/2009 Legea; Lege horren bidez lehia desleialaren eta publizitatearen lege-araubidea aldatzen da, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa hobetzeko.

http://www.boe.es/aeboe/consultas/bases_datos/doc.php?id=BOE-A-2009-21162

- Hezitzaileei zuzendutako prestakuntza. Publizitatea, gazteak eta kontsumoa. KONTSUMOBIDE.

http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbform2/es/contenidos/informacion/kb_oferta_formativa_talleres/es_jornadas/informacion.html

- Métodos de análisis de la publicidad en el aula. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

<http://ares.cnice.mec.es/informes/12/contenido/pagina%2066.htm#4.4>

- Aprovechar las estrategias publicitarias. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

<http://ares.cnice.mec.es/informes/12/contenido/pagina%209.htm#1.8>

- Definiciones de publicidad. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

<http://ares.cnice.mec.es/informes/12/contenido/pagina%2044.htm#331>

- Aprender del atractivo de la publicidad. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

<http://ares.cnice.mec.es/informes/12/contenido/pagina%2069.htm#4.6>

- Contenido del mensaje publicitario. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

<http://ares.cnice.mec.es/informes/12/contenido/pagina%20175.htm#9.2>

Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax: 943 02 25 92

Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus